

Zaraobe Institutuak etengabeko hobekuntzan eta kalitate kudeaketa eredian oinarritutako politika eta estrategia garatzen du.

Kalitate politikarekiko konpromisoak organizazio osoari eragiten dio, talde interesatuen beharrak eta espektatibak, arrisku zein aukeren kudeaketa, arazuko eta legezko betekizunak, eta sistemaren etengabeko hobekuntzarako konpromisoa bete daitezen bermatzeko.

Organizazioko pertsona guztiok etengabeko hobekuntza eta kalitate politikaren garapenean aktiboki parte hartzeko erantzukizuna onartzen dugu.

Kalitatepean oinarritutako kudeaketa sistema bermatzeko, ondoko arloetako zereginak garatzen ditugu:

- Heziketa Zikloetan eta Enplegurako Prestakuntzan, UNE-EN ISO 9001:2015ren arabeko kalitate sistemaren ezarpena eta garapena
- Prozesu bidezko kudeaketa (PBK)
- Informazioa jasotzea, talde interesatuei zuzendutako inkesta planaren bitartez.

Kudeaketa sistema hau praktikoa, arina eta eraginkorra izan dadin, dokumentazioa eta prozedurak aldikako berrikusiko ditugu behar berrietara egokitzeko.

Halaber, kalitate politika Plan Estrategiko eta Urteko Planen bitartez hedatzen dugu.

## KUDEAKETA PROZESUAK

- ✓ ESTRATEGIA
- ✓ BALIABIDEAK
- ✓ PERTSONAK
- ✓ KOMUNIKAZIOA
- ✓ IKASGELA
- ✓ ENLEGUA
- ✓ BERRIKUNTZA/SORMENA
- ✓ PROZESUEN EGITURA

## HELBURU ESTRATEGIKOAK 22-26

- 1- IKASLEEN PRESTAKUNTZA LORTZEA, GAI EGINGO DITUZTEN TRESNEN BIDEZ, DIZIPLINA-ANIZTASUNA, LANKIDETZA ETA SORMENA SUSTATUZ
- 2- HEZKUNTZA-ESKAINNTZA IKASLE POTENTZIALEN BEHARRETARA EGOKITZEA, ANIZTASUNARI ETA HIZKUNTZEN TRATAMENDUARI ARRETA BEREZIA ESKAINIZ
- 3- ALIANTZEKIKO LANKIDETZAN AURRERA EGITEA, GIZARTEARI BALIO ERANTSIA EMATEN DIOTEN EKIMENAK ESKAINTZEKO
- 4- DIGITALIZAZIOA GURE ZERBITZUA HOBETZEKO TRESNA GISA HARTZEA, MODU SEGURU ETA ERAGINKORREAN IKASTETXEARENTZAT ETA PERTSONENTZAT
- 5- ZENTRO DINAMIKO ETA AKTIBOAREN IRUDIA BULTZATZEA, GIZARTEARI ETA IKASTETXEA OSATZEN DUTEN PERTSONEI ENTZUTEAZ ARDURATUTA
- 6- IKASTETXE GISA EGITEN DUGUN JARDUERARI LOTUTAKO GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK BULTZATZEA

Helburu estrategiko hauek, SMART izeneko helburuetan mugatzen dira: zehatzak, neurgarriak, lorgarriak, errealak eta denboran mugatuak. Aldi berean, helburu hauek lortu ahal izateko, smart helburuak dituzten ekintzak edota arrakastarako faktoreak definitu ditugu.

Urteko Planeko zabaltzean ere, noiz eta zein den neurtzeko prozesu arduraduna agertzen da.

Helburu eta ekintza guzti hauen betetze maila, kalitate sistemaren urteko errebisioaren txostenean jasotzen da.